

ANOETA / Internet bidezko mailegu eta kontsultak ugaritu dira herriko liburutegian.

EAEko liburutegien sarean sartu zenetik 4,5 puntu egin du gora maileguen tasak

Erredakzioa

Anoetako Udal Liburutegia orain urtebete EAEko liburutegien sare informatikoan sartu ondoren, Internet bidezko kontsulta eta mailegu kopuruak gora egin du, azken sei hilabetetan Udalak jasotako datuen arabera. Liburutegian 1375 mailegu egin dira, horrek hilabeteen batez beste 230 titulu suposatzen du. ELSNeko (Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionala) zuzeneko katalogoan barneratu aurretik, batez beste 220 titulu mailegatzen ziren. Beraz, sare honetan sartzeak maileguak %4,5a igotzea suposatu du.

Liburutegien arteko maileguei dagokionez, hau da, sareko partaide diren beste liburutegietara bidalitako aleak, kanpoko bazkideen sei eskaerei arreta egin zaie. Bestalde, 18 titulu jaso dira, horietatik 3 Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneari dagozkie eta gainontzekoak beste liburutegietatik jasotakoak izan dira. Lehen Koldo Mitxelenara soilik eskaerak luzatzeko aukera zegoen eta orain kontsulta eta mailegu zerbitzu honi esker, beste liburutegietara eskaerak egiteko aukera ere zabaltzen da.

OPAC sistemaren bidez eginiko kontsultak Interneta bitartez ELSN katalogoari eginiko kontsultak 318 izan dira. Kontsulta hauek ondarearen katalogoaren ale jakin bat bilatzerakoan, bere eskuragarritasuna behatzen denean liburutegian bertan eginiko kontsultak egiterakoan suertatzen dira edota ELSNko liburutegiko sarean titulu jakin bat aurkitzen saiatzen denean.

Zerbitzu honek liburutegiko bazkideen kopurua handitzea espero du Udalak. Duela gutxira arte uste ezina zen ondare batera sarbidea eskaintzen duen zerbitzu honek, eskaintzen diren izenburuen kopuruagatik, hobekuntza kuantitabo nabaria suposatu du, azaldu dute Udaletik; gainera, hobekuntza kualitatiboa ere suposatu du, hemendik aurrera ikastolako eta unibertsitateko ikasleek eta materia jakin batean interesa dutenek liburutegi bakarrean eskuraezinak diren arloak eta gaiak eskura izan ditzaketelako. Horretarako Udal Liburutegiko ordenagailutik ELSNko katalogo honetan sarbidea ematen duen bazkide txartel berria eskuratzea besterik ez da behar.